

2. AIREA

Ekipoa	Xurgatzeko kabina eramangarria, emisioak arazteko sistemarekin
Kodea	B-2001
Ingurumen-hobekuntza	% 80ra arte murrizten ditu konposatu organiko lurrunkorrak (KOL), eta langileen lan-osasuna hobetzen du.
Honetan datza:	<p>Xurgatzeko kabina eramangarri bat da; alegia, pintatzen den lekura garraiatu eta hantxe jar daiteke. Gainera, xurgatzeko kabinak sistema bat dauka, araztutako airea instalazioaren barruan hustu baino lehen emisioak arazteko. Arazketa-sistema horrek, lehenik eta behin, pinturaren partikulak/tantatxoak atxikitzen ditu iragazki mailakatuen bidez, eta, ondoren, disolbatzaileak adsorbatzen ditu ikatz aktibozko iragazkietan.</p> <p>Ekipoaren egitura metalezkoa izaten da normalean, berariaz diseinaturik pintura lixatzeko eta lainoztatze lanak egiten diren eremutik datorren airea xurgatzeko eta iragazteko, usainak eta dioxinak ezabatzeko, etab. Airea xurgatzen duenez, lainoztatzearen hondakin- lainoak ez dira lokalean barreiatzen.</p> <p>Ekipo horiek motor bat edo bi izaten dituzte. Motorrek mugitzen dute industria-lokal edo pabiloi bateko airea xurgatzeko ahalmena duen erauzgailua.</p> <p>Pintura-pigmentuak (edo usainak, dioxinak...) dituen aireak zenbait iragazki mailakatu igarotzen ditu. Iragazki horiek beira- zuntzezkoak edo zuntz sintetikoak izan ohi dira, atxikipen-ahalmen handia dute eta karga gutxi galtzen dute. Ondoren, porositate egokia duen karbono aktibozko geruza zeharkatzen du aire horrek, eta pinturatan erabilitako disolbatzaileen lurrunkor geruza horretan atxikita geratzen dira.</p> <p>Azkenik, airea kabinatik kanporatzen da, partikula solidorik eta disolbatzailearik gabe. % 80ra arte murrizten ditu KOLak eta langileen lan-osasuna hobetzen du.</p> <p>Ekipoak guztiz autonomoak dira; pintaketa-lanak egiten diren edozein lekura eramanez eta bertan jar daitezke.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitezkeen	<p>Kanpoan geratzen dira urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua bete behar duten eta indarreko legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatzen duten jarduerak, edo dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzeko eskatu zaienak.</p> <p>100 eta 1.000 mg COV/Nm³ arteko emarrietan eta hezetasun erlatiboa % 70 baino handiagoa ez den lekuetan aplikatzen da. Adibidez, honako sektore</p>



hauetan:

- Karrozeria-industria / automobilgintza (NACE 29).
- Metalaren industria (NACE 24).
- Altzarien akaberen industria (NACE 16).
- Elikagaien industria (NACE 10).
- Industria farmazeutikoa (NACE 21).
- Industria petrokimikoa (NACE 19).
- Inprentaren industria (NACE 18).